

2. ZATIA: MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Zein da gure bezeroa?

Gure bezeroak izango dira elikagai ekologikoak baloratzen dituzten pertsonak eta bertako produktuak kontsumitzen dutenak.

Lehenengo, merkatu lokaletako saltzaileak izango dira gure bezeroak eta haiei salduko dizkiegu gure produktuak.

Behin merkatuan segmentatu garela, bigarren urrats batean, erosle-kooperatibekin harremanetan jarriko gara eta haiek dituzten bezeroak erakarriko ditugu gure enpresako produktuak erostera. Horrez gain, hemengo supermerkatu eta merkatuekin (Eroski, BM) akordioetara iritsiko gara eta haiek salduko dituzte gure produktuak, jada baitituzte km0-ko barazki eta fruten sekzioak.

Gure merkatu-segmentazioari dagokionez, gure merkatua da nitxoz osatutako merkatua; izan ere, nahiz eta talde zabala izan, behar bereziak dituzten pertsonak diragure bezeroak, hau da, bertako produktuak kontsumitzeko beharra dutenak. Nitxoz osatutako merkatua izatean, bezeroek saltzailearekiko duten leialtasuna da ezaugarririk garrantzitsuenak. Nitxozko merkatua izan arren, gero eta popularragoa bihurtu da km0-ko produktuak kontsumitzea eta handitzen dagoen merkatua da.

Zein dira bezero horien ezaugarriak?

- Edozein adin-tarteko jendea, merkatuan erosten du.
- Elikagai ekologikoak eta Km0 produktuak baloratzen ditu